

Aniceto Azkarate Zalba
Esteribar, Nafarroa (1907)

Aurkibidea

Biografia

Esteribarko Zai herrian (gaur egun hustuta) jaio zen arren, oso txikia zela eraman zuten Leranotzera. Ama ere Esteribarkoa zuen, Antxoritz herrikoa. Euskaraz ongi mintzatzen omen zen. Aita, berriz, Soraurengoa (Ezkabarte) zen eta ez omen zekien euskaraz.

Zintak

EST-012

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 6 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Zaien jaioa; euskararen egoera inguruetan

- **Erref:** EST-012/001
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Zaien jaioa da bera. Ama Antxorizkoa zuen eta aita Soraurengoa. Amak bazekien euskaraz, baina aitak ez. Inguruetan oraindik euskara gorde duten pertsonak.</p>

Transkripzioa

- Erran zazu non sortu zinen.
- Ni Zaien.
- Eta aitatamak nongoak ziren?
- Soraungua, aite Soraungoköa ta ama Antxorizköa.
- Eta aitak bazekien euskararik?
- Aitak ez, yius ez.
- Eta amak ongi zekien?
- Amak bai.
- Eta oroitzen zara amaren aitatamak nongoak ziren?
- Ni ez, enaitz oroitzen ni.
- Eta amak ongi zekien euskaraz, e?
- Ama pai, amak bai.
- Eta zenbat urte izanen zituen orai bizi izan balitz?
- Oooi... ama! ze, ama? (semeari:) A los noventa y uno no murió la abuela?
- (Semea:) A los noventa y dos.
- Eta orain duela zenbat urte hil zela?
- (Semea:) Pues, hará igual...
- ¿Cuántos hay ahora? ¿veinte años?
- Con noventa y dos?... ciento doce? ciento doce.
- Nik bilatu dut hor, Antxoritz eta Zuriainen, baina ez dut inor harrapatu...
- Ez, ez, orr eztuzu arrep-, eztutzu arreatiko, ez; ta llarratzen ere... iñorr e ez.
- llarratzen bada gizon bat Erreatik etorria, Arregi.
- Arregi, Tomas...
- Bai, baina horrek ere erraten du ez dakiela.
- Ez, ez, eztaki; orren aitek ere bazekien euskeraz beño orrek eztaki euskeraz, ez.
- Noiz arte bizi izan zinen Zaien?
- Ni? oi-oi... je! pañaletan eaman men tzien... Leanotze!... ni enaiz ooitzen, beno oraindi erraten diate "en pañales te llevemos a Leranoz", je!
- Eta gero, Leranotzen noiz arte bizi izan zara?
- Leanotzik egatu nitzen llarratzera... amalau-amabortz urtetan.
- Hamalu-hamabortz urtetan, e?
- Bai.
- Eta llarratzen, orduan, egiten zen euskaraz?
- llarratzen bai, ta Arregin a-, Arregin ait oi, ori, Tomasein aitek ere bazakien euskeraz, ta... bestzeak e bai, Xatunen... an, ori, Patricio, orrek ere bazakin uskeraz... ta bestzoat? Usitxiko semia zen, (semeari:) el hermano de Juanito, el cojo, ése también sabía el vasco. Gero bestzeak ere... Urio, Victorio Urio... Benarda...

- Eskiroitzen ere erraten duzu bazela?
- Bai, bazen, bazen.
- Zenbat, batzuk baziren?
- Baziren euskeraz, ta... bi etxetan: Mariano Esain, arrek e bazakie euskeraz itz ein; gero? Salvador Mezkiriz, orrek bai, arrek ere bazakien euskeraz, ure il tzen, beño semeak eztakite yeus e.
- Bai, apellido horiek guztiak aditu ditut; hor Larrasoañan ere bazen gizon bat, Juanito Esain, ez? Juanito Ėsain? bñi.
- Duela sei edo zazpi urte hil zela, e?
- Bai.
- Aski zahar, franko zahar...
- Arrek ere bazakien uskeraz, beña arren... andreak etzakin yeus ere ez. (Semeari:) Este, Juanito, el padre del, de este, del... electricista, de Luisita, de Miguelito; fue el padre de ése.
- Orduan, pañaletan eraman zintuzten Leranotza eta gero hamabortz urtekin Ilarratza; eta Ilarratzen noiz arte bizi izan zara?
- Oi, noiz artio? nik... bah! berrogei urte o ola... damakit, fan nitzelaik Billanuera.
- Nola?
- Billanuebara fan nitzelaik? berrogei urte beño geyago n(u)ituela.
- Eta gero, Billanuebara joan zinelarik, han ere egiten zen euskaraz, artean, pixka bat?
- Bai, biño gutxi.

2. Inguruko herrietan mintzamolde berbera

- **Erref:** EST-012/002
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Inguruko herrietan mintzamolde berbera darabiltela dio. Berak amarekin ikasi zuen euskaraz, eta gero Leranotzen eta Usetxin ere bai. Leranotzen euskaraz egiten zuten adinekoek. Anaia eta arreba zituen. Amarekin euskaraz hitz egiten zuenean aita haserretu egiten zen.</p>

Transkripzioa

- Euskaraz mintzatzeko maneran bazen diferentziarik Leranotzik Ilarratza?
- Ez, yeus ez.
- Igual-igual-igual egiten zen?
- Igual-igual, bai; ta Usitxikua ere bai.
- Zuk non egin zenuen euskara gehiago, Leranotzen ala Ilarratzen?
- Ni Leanotzen.
- Leranotzen gehiago, ezta? eta Ilarratzen ere bai, gero, e?
- Bai, beño gutti, e?
- Adinekoekin eta hola, ezta?
- Ilarratzen gutti beño Leanotzen, arront uskeaz.
- Norekin ikasi zenuen, amarekin?
- Ni?
- Amarekin eta Leranotzen, ezta?
- Usetxi... Usetxi, ta gero... oyanean ibiltzi-, ibili nitzen...
- Bai, baina Usetxin baino gehiago bizi izan zinen Leranotzen. ez?
- Bai.

- Orduan Leranotzen ikasi zenuen...
- Leanotzen baziren uskaldun aunitz, zarrak, lengo zarrak denak! Hipolito in aitek eta o, beztze oik, beitiko itxe ok ere, aitek eta gor, denak uskeaz!
- Eta amatxi edo amutxi edo, nola erraten duzue 'abuela'?
- Eje! amitxi.
- Ez zenuen zuk amitxirik edo aitatxirik etxean?
- Ez.
- Ez, e? beti aitatamekin... eta anai-arrebarik izan duzu?
- Anai-arrebak bai, anaie ta... arreba.
- Zu baino zaharrago ala gazteago?
- Arreba, ni beño zarrao.
- E? zu baino zaharragoa, arreba?
- Bai.
- Eta anaia gazteago...
- Anaia gaztiao, gaztena da anaëa.
- Eta horien artean beti euskaraz orduan?
- Itxan? uskeaz aitu ginenian, aitzindanean amak eta ni? aite beti marmarka. "A mí me queréis engañar, hablando aquí en vasco los dos", beti ola esaten tziren... Le sabía malo, al difunto padre; la madre tenía costumbre de hablar en vasco...

3. "Ardoa edanda..." kanta ezaguna, errezitaturik

- **Erref:** EST-012/003
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>"Ardoa edanda..." kanta ezaguna errezitatzen du.</p>

Transkripzioa

Ardue edanta mozkortzen naiz
Pipa y artuta xoratzen naiz
Kortejatzera lotsatzen naiz
Nola demontre biziko naiz.

Ardue edanta ez mozkortu
Pipa y artuta y ez xoratu
Kortejatzera ez lotsatu
Nauten (nahi duten) bezala beaut bizitu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com